

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko apirilaren 19a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Nafarkaria Euskaldunok Gara Zeteri emenon!

Nafarroa • 'Nabarra' hilabetekariaren proiektua sendotuz doa eta urtebetea egin du • 2


Jone Fagoaga • «Jendea ohituta dago ni eskopetarekin ikustera; lehenago okerragoa zen» • 7

Argazkilaria ~~aren~~ agurra

Joxe Lacallek, urteetan Nafarroan euskal prentsako argazkilaria izan denak, bere betiko lanbidea utzi du. Orain tabernaria da. «Milaka istorio, milaka borroka» irudikatu zituen bere argazki makinarekin. Hogeita bost urtean Nafarroan izan ziren ekintza askoren argazkia egin zuen; baina «ikusgarriena», Itoizko kableen mozketa, galdu egin zuen. Hori da bere penetako bat. Hori eta aurrerantzean horrelakoak ezin izanen dituela inoiz gehiago bizi.



• MIKEL SAIZ



Adier, Edurrez Inerrez, Eka de Bano 131 hotz, Bihotzez, Jotaki Ina bazi arte

Joxe

Nafarroa

Mugarik

gabeko 'Nabarra'

Nafarroako euskarazko hilabetekari bakarrak urtebete egin du dagoeneko

Gogorra izan da. Lanak eman ditu. Baina konturatu gabe, di-da batean, 'Nabarra' hilabetekariak hamahirugarren zenbakia karrikatu du; urtebete egin duela, alegia. Ez dute ospakizun handirik eginen. Nahikoa dute aldizkaria ateratzearekin.

gabiltza. Arazoak gorabehera, ederra izan da ikustea nola gorpuztu den hasierako proiektu hura».

Nabarra-koek erakutsi dute Nafarroan euskarazko hilabetekari duina egitea posible dela. «Hasiera batean jendeak pentsatzen zuen eroak ginela halako zerbait martxan jartzeagatik. Baina hilabetetik hila-betera aldizkari txukuna egiten dugu. Hala ere, ez dugu oraindik bide osoa egin, urtebete ez baita deus».

Diru laguntzarik ez du jaso *Nabarra*-k. «Sostengua, batez ere, harpidedunengandik etorri zaigu», dio Agotek. «Eta publizitatearekin ere zer edo zer lortu dugu; baina, batez ere, inprenta gastuak kitatzeko. Diruari dagokionez, larri ibili gara, baina gurera gero eta jende gehiago hurbiltzen den heinean, hobera eginen dugu».

Aldaketarik ez urteurrenean

Ez dute *Nabarra*-n ospakizun berezirik eginen urtemuga dela eta. Aldaketa handirik ere ez dute sartu azken zenbakian. «Gure baliabideak xumeak dira», azaldu du Agotek. «Saia-tzen gara hilabetez hilabete zer edo zer hobetzen. Azken zenbakirako kolaboratzaile berri batzuk fitxatu ditugu: Jon Alonso, Mikel Taberna eta Xamar. Eta arte eszenikoei eskainitako orrialdea gaineratu dugu. Mementoz ez dugu aldaketa gehiagorik eginen».

«Aldizkariaren kalitatea hobetzea, gai interesgarriak jorratzea, eta jendearen gustukoa izan den aldizkaria egitea, horiexek dira gure helburuak», esan du, azkenik, Agotek. Eta horretan ari dira.

→ Asier Azpilikueta

Basaburua-Ultzama

Udaberri Kulturala

Loreak bezain ugariak dira kultur ekitaldiak garai honetan Basaburua eta Ultzama bailaretan. Gaur bertan, inguruko euskalzaleak Berueteke sagardotegian bilduko dira afaltzeko, Ultzama-Larraun aldeko AEKko euskaltegiak antolatuturik.


Basaburuko kultur batzordeak, urtero bezala, Udaberri Kulturala antolatu du. Bihar, Aralar udal musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Orokietako elizan, 17:00etan. Mus txapelketako finalak heldu den asteburuan jokatuko dira, eta maiatzaren lehenengoan Basaburua ibarra zeharkatuko duen mendi ateraldia izanen da; Maiatzaren 12an Muitzera joanen dira erromerian. Ondoren hamaikatekoa eginen dute Itsason.

Ekainaren 1ean bertso afaria izanen da Gartzarongo elkarteak, eta hurrengo egunean, basaburuko Eguna. Udaberri Kulturalarekin bukatzeko, ekainaren 23an, Adinduen Eguna ospatuko dute.

Bihar Ametza kultur elkartearen eguna

Bestalde, Esan-erran irratia eta Pulunpe aldizkaria kudeatzen dituen Ametza kultur elkarteak egun berezia prestatu du biharko, Larraintzako pilotalekuan 17:00etan: Trokolo antzerki taldea, txokolate jatea, dantzariak... Eta gauerditik aurrera, Ultzaman sortu den lehen rock taldea, Eremu taldea, alegia. Berarekin batera, Zartako eta Etzakit taldeek joko dute.

→ Txari Eleta



Nabarra-k, Nafarroako euskarazko hilabetekari bakarrak, urtebete egin du kioskoetan. ● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS


Nabarra HILABETEKARIAREN azken zenbakiak Nafarroaren Egunaren gaineko erreportaia dakar. Horren kontura, Nafarroa mugarik gabeko herria dela diote. *Nabarra* ere, mugarik gabeko aldizkaria da. «*Nabarrak*, nahiz eta hemen sortua izan, Euskal Herriko beste lurraldeetan oso harrera ona izan du, Gipuzkoan eta Bizkaian bereziki», azaldu du aldizkari zuzendari Gontzal Agotek. «*Nabarra* ez da bakarrik Nafarroarako. Hemengo sortzaileei lehentasuna ematen diegu,

eta hemengo ikuspegia dugu, baina euskal kultura da gure langaia, Euskal Herrikoa, eta gizarte gaiak jorratzen ditugunean saiatzen gara oso lokalistak ez izaten».

Nabarra aldizkariaren proiektua sendotzen ari da gutika-gutika. Hilabetero 5.000 ale argitaratzen dituzte, eta 1.500 bat harpidedun dituzte dagoeneko. «Hasieran oso gogorra izan zen, dena martxan jarri behar zelako, eta aldizkaria ezagutarazi behar zelako», erran du Agotek. «Baina azken hilabeteetan pixka bat lasaiago

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Teo Goñi etxetik irten, behinola, eta autobusera igo zen, bulegora joateko aitzakiatan. Alboan eseri zitzaion exekutibo itxurako gizon ezezagun batek erran zion gauza ikaragarri bat ari zela gertatzen bere etxean; alegia, bere emaztea beste gizon batekin zetxela bere ohean. Teo, hori entzunda, berehala itzuli zen etxera. Joan zen berak emaztearekin lo egiten zuen ohea ikustera eta, han, erdi ilunpetan, gizaseme bat eta emakume bat aurkitu zituen ohean etzanda. Teok, orduan, guztiz bere senetik aterata, brikolaje-zerra elektrikoa hartu eta lepoa moztu zien bi-biei. Etxetik ateratza zehar, ordea, nor topatuko eta bere emaztea topatu zuen. Teok galdetu zion ea nortzuk zeutzan beren ohean, eta neka-neka eginda ordu bat lehenago Saloutik iritsi berriak ziren haren aita-amak jarri zituela erantzun zion emazteak. Orduan, «Hil ditut, bada, nik», erran zion Teok, odolez bustitako zerra sofa gainera boteaz.

Gerora, auzitegian juzkatu eta zazpi urteko espetxe-

Dei okerra

zigorra leporatu zioten Teori. Espetxetik irten zenean, artean barru guztia damutan kiskaltzen zeukala, Erromarako bidea hartu eta han bere bekatua aitortu zion Aita Ooren Aitari, zeinak handik eta hil arteraino OPUS erakundearen esanetara biziko zela agindu baitzion. Penitentzia itzela, inondik ere. Teo lasterrean hasi zen, bada, Erakundearen Nafarroako egoitza ugarietan mantentze-lanak egiten: sukaldaritzan, txofertzan, garbikuntzan...

Behin baten, Teo eta numerario pare bat Aralarrera joan ziren, hango basilika ezagutzera. Elizan sartu eta kapela txiki batera joan ziren aurrenik. Han, Teori erran zioten burua sar zezan hormako zulotxo baten, kondaira zahar batek zioenez, herensuge beldurgarri bat bizi zelako barre-barrenean. Burua sartu zuen Teok zulo

estu hartan, eta ikusi zuen nola suge buruhandi bat bere gainera zetorrela; begi biak, ahoa eta sudurra kea eta txinpartak jario zituela. Orduan, «Joxe María, Joxe María Escriba, lagun egidak, otoi!», deiadar egin zuen Teok, arrunt izuturik.

Hola-hala, burua sutan zeukala zulotik atera eta bilin-balaunka jo zuen alboko horma, non, esekita zeuden kate batzuen artean korapilaturik, hil egin zen gizajoa, erabat kiskalita.

Artean basilikako erretore zen On Inozentziok (g.b.) Euskadi Irratiari jakinarazi zionez, Teok ez zuen batere asmatu laguntza-deia egin zuenean, zeren eta Done Mikeli deitu ordez -zerutik hegan egiten jaitsi eta bere ezpataz herensugeari lepoa moztu ziezaiot-, oraindik santutu gabe ere eta, gainera, inguru haietan erabat arrotza zen J. María Escriba dohatsuari deitu ziolako. «Hara, nori deitu jakin izan balu —erantsi zuen erretoreak-, oso bestela jokatu zukeen zeruko Jainkoak Teorekin».

Lizarra ●

Euskararen aste oparoa



Bihar, 'Euskara Estellerrian' izeneko erakusketa izanen da La Bota elkartean. Irudian, Korrika 12 Lizarrako karriketan barna. ● MIKEL SAIZ

Bihar ospatuko den egunarekin amaituko da gaur zortzi abiatu zen Euskararen Astea

Musika, antzerkia, zinema, hitzaldiak... Orotariko emanaldiak izan dira aste honetan zehar ospatzen ari den Euskararen Astea. Gaur magia izanen da euskaldunak biltzeko aitzakia, eta bihar erakusketa, herri-bazkaria eta Trikizio taldea.

euskaldunei zuzendutako ekitaldiak prestatzen saiatzen gara. Ume koskorretatik hasi, gazetxoak eta helduak gozatzeke egitarau zabala prestatzen saiatzen gara, hain zuzen ere», gaineratu du.

Euskararen Egunaren bilakaera

80 urteko hamarkadan hasi omen ziren Lizarran euskarazko ekitaldiak antolatzen, orduko udalak euskara sustatzeko eman aurrekontuaz baliatuta. «Azken urte hauetan iraupen ezberdina izan du euskarazko jarduerak sustatzea xede duen ekimen honek», azaldu du Es-

kobarrek. «Batzuetan Euskararen Eguna egin izan da, bertzeetan hiru egunez, bertzeetan ostiraletan biltzen ziren ekitaldiak eta, azkenik, Euskararen Astea egitea lortu dugu». Egunotan egiten ari den asteak 3.000 euroko aurrekontua du, eta horietatik 2.000 euro Lizarrako Udalak eman ditu.

Iraupenaz gain, ekimen honen aldaketak izan ditu egutegian ere. Hasiera batean, San Joan egunaren bezperan antolatzen ziren ekitaldiak. Sua, zantzarra, afaria, musika... Hala ere, sutea prestatzeko egon arazoan ostean, datak aldatzeko erabakia hartu zen; izan ere,

haurrak dagoeneko oporretan zeuden, eta gazteak azterketa garaian. Beraz, aurreratu egin zen egutegian Euskararen Astea.

2002. urteko Euskararen Astea gaur zortzi abiatu zen Ruper Ordorikak eman kontzertuarekin. Astelehenean Xabier Mendigurenek *Euskara eta globalizazioa* hitzaldia eman zuen. Asteartean, aldiz, zinemaz gozatzeke aukera izan zuten txikienek *Chicken Run* filmarekin, eta atzo Gilkitxaro Antzerki Taldeak *Trokaolatarrak* lana taularatu zuen.

→ Kristina Berasain



ur dai
aren
mintzoa


Xabier Larraburu

Katuen erlijioa

Katuen erlijioak ez die Jaungoiko batean sinestea eskatzen, baina bai zaratarik egin gabe pasilloan gora eta beheara ibiltzea eta txolarre baten txillioa entzun orduko belarriak tente jartzea, eta ea balkoiaren atea zabalik dagoen begiratzea (badaezpadaere) eta, beste batzuetan, besterik gabe begiak handitu eta beltztea (hutsari begira) espiritu bat gelatik pasatzen ariko balitz bezala.

Katuen erlijioak ez du giza haragizko jainkoetan sinesten eta, hortaz, ez dute Fermin Deunean sinesten ere. (Are gehiago: Jaiaren fanfarreek entzun orduko ohearen azpira doaz segituan beraien ezadostasuna nabarmenki azalduz). Katuek zuhaitzetan sinesten dute (txoriak beraien fruituak direla sinetsiak daude), eta bereziki hor nonbait (mundu zabalean) dagoen Zuhaitz Sakratu batean sinesten dute. Zuhaitza arrunta eta ezezaguna ei da (anonimoa) eta berrehun urtez bizi omen da, gerora hil eta ondotik beste zuhaitz arrunt baten moldean (beste nonbaiten) birjaioitzeko.

Eskola bateko katuek zuhaitz hori beti zumarra dela diote, beste-zuek haritza dela beti, bestetzuek mundua mundu denetik pagoa izan dela, bestetzuek berpizkunde bakoitzean zuhaitz klasea aldatzen dela diote. Katuen artean mistikoenek zuhaitz anonimo honen bila atera eta zuhaitzetara igotzen dira. Gero, askotan, suhiltzaileak deitu behar dira mistikoen artean mistikoko horiek lurreratzeko. (Suhiltzaileak ez dauden lurraldeetan, doike, katuen hezurdura osoak ikusten ahal dira zuhaitzetako adarretan). Katuen erlijioak eltxo txikiaren ibilerak zaindu behar direla eskatzen du, baina ez du, askotan horrela uste dugun arren, eltxoa akatzera behartzen. Katuen erlijioak, bizitzan zehar prezeptu hauek betetzeko, hil ondorengo berrogei sardina agintzen ditu (bakoitzeko) paradisuari. (Zuhaitzaren gainaldean hilez gero ehun izango dira). Katuen erlijioak ez du misterio gehigarrik. ●



NAFARROAKO EZKERRAREN I.TOPAKETAK

BESTE NAFARROA
POSIBLE DA

Apirilak 20 goizeko 9,30-etan
Golem zinematokian
IRUÑA

batasuna

NAFARROAREKIN
KONPROMISOA




Joxe Lacalle ARGAZKILARIA



«Argazki asko egin lut, baina ikusgarriena, ltoizkoa, galdu nun»

Joxe Lacallek, Nafarroan euskal prentsako betiko argazkilaria izan denak, erran dio bere betiko lanari. Bizitza erdia, mende laurdena alegia, eman Nafarroako bizitza irudikatzen 'Egin', EGUNKARIA, 'Nafarkaria' eta 'Argazki' hedabideendako. Orain badao. Agur, argazkilaria.

soslaia



MIKELSAIZ

Joxe Lacalle Huarte, Miguel eta Nicasiaren semea, Etxaurin jaio zen, 1951ko maiatzaren 19an. Lau anaia eta hiru arreba zituen. Marisarekin ezkondu zen, eta hiru seme eta hiru alaba izan zituzten. Egun Zizur Nagusian bizi dira.

Txantreako Foto Herce argazki dendan hasi zen Joxe Lacalle, 1976an. «Hainbat behar ziren dendan», dio. «Batzuk laborategian eta beste batzuk kalean. Nik kalean egiten nuen: ezkontzak, bataiatzeak eta jaunartzeak. Eta herrietako jaietara ere ginen kartoizko zaldi eta zezen batekin».

1980 urte aldera Egin egunkariarekin kolaboratzen hasi zen. Eta hain ibili zen 1980zuen arte. Jaio zirenetik, EUSKALDUNOK EGUNKARIAKO eta honen gehigarri NAFARROKO egunkariarekin kolaboratzaile izan da. Argia astekariarendako ere egin du lan.

Garai batean, tabernari eta argazkilaria izan zen, Jarauta karrikako Lacalle taberna gurasoena baitzen. Orain, 50 urterekin, euskal prentsa alde batera utzita, ostalaritza lanean, Noaingo industrialdeko Haizeta jatetxean. Argazkilaria zena, berriz ere

«Jendeak ni ikusi eta zerbait gertatuko zela pentsatzen zuten. Batzuetan foruzainei erraten nien intsumisoak agertuko zirela, eta etorriko ez zenerako prestatzen hasten ziren»

■ **Hogei urte baino gehiago prentsa munduan lanean; egunero prentsaurrekotik prentsaurrekora.**

Errekorra hamasei lanekoa dut. Uda zen eta azken prentsaurrekora ordubet berandua go iritsi nintzen, izerdi patsetan.

■ **Prentsaurrekoekin aspertuta, ezta?**
Kokoteraino bukatzen duzu. Egunero prentsaurreko asko dira, eta, azkenean, ez dakizu argazkia nondik egin. Gainera, prentsaurreko askotan, jendeak hitz egin ordez komunikatua irakurtzen du, burua altxatu gabe, eta horrela ez dago argazki ona egiterik. Zain egon behar duzu burua altxatu arte edo eskuak mugitu arte.

■ **Bada, zein egoeratan aritzen zara gustura argazkiak egiten?**

Asko gustatzen zaizkit dantza eta pilotakoak. Bi gaiok biziki erakartzen naute. Eta beti izan dut Olinpiar Jokotara joateko gogo, gimnastika erritmokoko argazkiak egiteko. Orain zaila izan da hori gauzatzea, ezinezkoa kasik.

■ **Futbola ere asko gustatzen zaizu. Osasunako partida askotan egon zara.**

Bai, Hirugarren Mailan zegoenetik. Duela hogei urte, Lehen Mailara igotzeko Osasunak lau partida irabazi behar zituen eta laurak irabazi zituen. Orduko argazki bat gogorak geldituko zait betiko; Alaves-Osasuna partida batekoa. Etxeberria eskuin hegaletik barneratu, jaurtiketa egin, eta nik, motor eta teleobjektiborik gabeko makinarekin harrapatu nuen Mazingar Basauri erabat luzatuta, airean etzanda bezala, sarera zihoan baloia ezin harturik. Maitasun handiz gogoratzen dut argazki hura.

■ **Kiroletan argazki gogoangarriak egiten zenituen ezbaiz gabe, baina borroka guzietako argazkilaria izateagatik zara ezaguna.**
Horrek sutan jarri nau askotan. Niri asko gustatzen zitzaizkidan argazkilaria txalekoa eramatea. Eta, adibidez, argazki makinarekin Gazteluko plazako Txoko tabernan sartzen nintzelarik beti bazegoen norbait erraten zuena: «Zu hemen zaude, zerbait gertatuko da segurur». Diputazio ataritik pasatzen nintzenean, foruzainek gauza bera esaten zidaten: «Nor etorriko zaigu gaur ekintza egite-

MILAKA ARGAZKI EGIN DITU JOXE LACALLEK bere ibilbidean. Elkarrizketa hau laguntzen duten argazkietan saiatu da «hainbat borroka gogora ekartzeko».


■ **Nafarroan argazkilaria gisa istorio andana bizi izan duzu.**

Bai, milaka istorio izan dira, milaka borroka. Txarrenetatik hasita, gogoan dut behin oso gaizki pasatu nuela autobiaen aurkako mobilizazio batean, Lurraldea koordinakunde-koak Gorrititik sartzen saiatu zirenean. Guardia Zibila agertu eta tiroka hasi zen. Karretea ezkutatu nuen, baina azkenean karretea kendu eta sekulako jipoia eman zidaten. Beste behin, preso senideekin, jipoia eman eta makina tikituzidaten poliziek. Prentsako beso-ko berdea eramateak ez zuen ezer balio.

■ **Garai batez tabernari eta argazkilaria ere izan zinen.**

Bai. Gurasoek taberna bat zuten. Saiatzen nintzen goizetan tabernan egoten eta arratsaldeetan argazkilaria izaten. Gainera, 1979ko martxoan bonba bat jarri zidan Accion Nacionalista Española taldeak gurasoen tabernan. Goiz batez gizon bat sartu zen tabernan. Hartutakoa kobratzeko unean, buelta eman nuelarik, gizona komunean sartu eta gero, korrika atera zen. Zisternan poltsa bat zegoen, kableekin. Taberna hustu eta polizia abisatu nuen. Bi ordu geroago agertu ziren. Eta, noski, bonba lehertu egin zen. Triskantza handia eragin zuen. Zorionez, auzokideek taberna berriz eraikitzen lagundu ninduten.

Eta bi urte geroago, aniztatan bisitatu ninduen Guardia Zibilak atxilotu ninduen azkenean, talde armatuari laguntzea leporatuta. Guardia Zibileko komandantzia ederki egurtu ninduten, eta Carabanchelen lau hila-bete eman nituen. Baina gero dena ezerezean gelditu zen. Eta kartzelatik atera nintzenean, nahiago izan nuen bakarrik argazkilaria aritu.



Iruñeko udaltzainak Txantreako bizilagunei oldartzen, azokaren inguruko iskanbiletan, 1988. urtearen bukaeran.



Guardia zibil bat traktore baten gainean, Arangurengo zabortegiko iskanbiletan, 1990eko ekainean.



Dantza emanaldia Gaiarre antzokian, urte hasieran.



Espainiako bi polizia Gazteluko plazan gazte bat axilotzen, 1997ko otsaillean.



Mikel Castillo etakidearen hilketza Iruñeko karriketatik eramaten, 1991ko irailean.

«Etsai asko utzi dut polizian. Batzuei min handia ematen die egin dutena argazki batean ikusteak. Baina nik egin dudana bakarria izan da gertatzen zena irudikatzea»

ra?». Behin baino gehiagotan ziria sartu diet horren kontura. Erraten nien intsumisoak agertuko zirela, eta hor hasten ziren ero moduan etorriko ez zenerako prestatzen.

■ **Makina bat ekintzatan egona zara, baina Itoizkoa galdu zenuen.**

Bai. Hori da nire pena handienetako bat, Nafarroan egin diren ekintzetan ikusgarrienean. Itoizko kableen mozketan, ez egotea. Kontua da Egin-eko nagusiak erran zidala ostiral gaua mendian eman behar genuela eta bi argazki makinak hartu behar nituela, bere teleobjektiboekin. Garai hartan nik min nuen bizkarrean eta ezin nuen zama handirik eraman; hortaz, erran nion nahiago nuela larunbatean Lizarran izanzen txirringulartza lasterketa egin. Oskar Montero joan zen Itoizera. Eta ni, Lizarratik bueltan, irratia piztu, ekintzaren berri izan, eta sutan jarri nintzen. Nahiz eta jakin genuen hain izan ziren lankideek oso gaizki pasatu zutela. Zorionez, erredaktore batek bi karrete salbatu ahal izan zituen, bularrekoan sartuz.

■ **Karreteak ezkutatzeko eskatzen duten horrelako ekintzetan eskarmentu handikoa zara. Baina iazko ekintza batean bekadun baten modura ibili zinen.**

Bai, Unibertsitate Klinikatik gertu gaztelaniaz soilik zegoen bide seinale bat moztu zuten motozerraz. Lana bukatu eta ekintzaileak joan zen, baina ni, hasiberri baten gisara, hantxe gelditu nintzen, polizia agertu arte. Urteetan karreteak galtzontziloetan, zapatean, edonon, gorde eta gero, hantxe gelditu nintzen, zain. Goiz osoa izan ninduten Udaltzaingoaren egoitza, eta karreteak kendu zizkidaten. Baina ezin izan zidaten deus ere leporatu; eta, orduetik, udaltzain burua oso haserretuta dago nirekin. Espainiako Poliziako buruak eta Foruzaineko buruak ez bezala, ez nau inoiz agurtzen.

■ **Kolore guzietako poliziekin aritzea egokitu zaizu. Zer moduz moldatu zara beraiekin?**

Etsai ugari utzi dut mundu horretan. Batzuei min handia ematen baitie egin dutena argazki batean ikusteak. Baina nik egiten dudana bakarria da hor dagoena irudikatzea. Kontzentrazio batean polizia batek gazte bat egurtzen bada, nik argazkia egiten dut, hor gertatu denaren testigantza jasotzeko. Bere lana zapaltzea bada, nirea da bertan egon ez direnei kontatzea zer gertatu den.

■ **Zer moduz moldatu zara hainbestetan irudikatu dituzun politikariekin?**

Hogei urtean asko ezagutu ditut: Del Burgo, Gomara, Urralburu, Otano... Miguel Sanzekin harreman egokia izan dut, zuzena. Duela asko ezagutzen dut. Uste dut lehenbiziko elkarrizketa 1988an egin geniola. Corellan alkate zela. Elkarrizketa polemikoa izan zen, eta ia UPNtik botá zuten erran zituengatik. Nirekin beti izan da atsegina. Eta Allirekin ere oso ongi moldatu naiz. Eta, noski, abertzale eta ezkerrekoekin beti ongi. PSO-Ekoekin ez horren ongi; ezatseginenak izan dira beti.

■ **Zurekin kaletik joatea neko-soa da. Une oro gelditzen zara. Milaka lagun dituzu.**

Bai, lagun asko. Eta aukera hau baliatu nahiko nuke eskerrak emateko guziei. Momentu zailtan askok lagundu bainaute.

■ **Penaz zoaz, ezta?**


Bai, pena handiz. Lankideekin oso harreman ona izan dut; jende gaztearekin lan egitea ederra baita. Eta lan hau uzteak ere atsekabetzen nau. Gustura nengoen kalean lanean, jendearrekin egoten eta jendea ezagutzen.



Lau gazte Euskal Jai gaztebako teilatu gainean, 1994ko ekainean.



Langile edadetu bat ukabila albatzen 1991ko Maiatzaren Lehenean, Gazteluko plazan.



Abel Barriola pilotaria Labrit frontoian, iazko irailean.

Asier Azpilikueta

Pintxo asteaz

Pipermina. Duela urtebete, semeak Juan Kruz ponteko izenari uko egin eta Jon bere hitzetan «euskaldunagoaren» aldeko apustua egin zuen. Nago nire begi ninieta-ko mukizua ikastolako irakasle talibanen batek burua garbituta —seguru asko baita zentrifugatuta ere— bilakatu zela aranista garbizale. Bada- kit pasadizo askotan, gehiegitan azaldu dudala zutabe honetan berean, baina minean min eman zidan ni sortu nintzen enbor beretik sorturikoak muzin egitea bere aitar- en, bere aitonen, Foru Er- kidegoko lehendakari ohi ba- ten izenari, harrezkerotzik mina minean bueltaka eta ji- raka dabilkit sorgin gupil ba- ten modura, ez dago samina arinduko didan aspirinarik,



Javier Iturbe, PSNko Iruñeko Udaleko eleduna.



Pintxoek ez dute bistako zerikusirik Operación Triunfo saioarekin.

hamabostekin hasi eta ha- mazazpirekin amaitzen zen. Egun, bederatzirteko hau- rrak aurrenerabeak dira, eta hamarrekook nerabe peto- petoak, eta izendapen horri berari eusten diote hoguei, hogeita bost, hogeita hamar urte bete arte —edo gehia- go: badut nire izen bereko iloba 32 urterekin pikorrez beteta segitzen duena—. Se- guru asko gauzak bestelako- ak lirake baldin eta eskole- tan pedagogo, psikopeda- gogo, psikologo, psikomo- trizidade koordinatzaile gu- txiengo baleude. Gauzak horrela, Larraitz-txo —nola demontre ezartzen zaio txi- kigarria tz-z amaitzen diren hitzei, izenei?—, hamar ur- terekin, aurrenerabearoan murgilduta dabil. Aldez au- rretiko hormona saltsak Operación Triunfo-zale amorratu bilakatu du, edo, zehatzago esanda, **David Bustamante** zale porrokatu. Jonek dio Operación Triunfo Partidu Popularraren saioa dela —badirudi behingoagatik irakasle tali- banak egia berdadero bat sartu diola kaskoan—, eta horregatik deitzen dio Pepita arrebari. Gezurra badirudi ere, gaur zutabea Operación Triunfo-ren eta Pintxoaren Astearen arteko parekota- sunen inguruan egin nahi nuen. Argi da- go gehiegi luzatu naizela Pepitaren isto- rioaren sarreratxoarekin. Zer eginen diogu bada. Heldu den asterako utzi be- harko dut. Ezin da beti goi mailan aritu.

nolotilik, ocalidonik, eta erraiak lerroo- tan husteak zertxobait laguntzen dit —sa- soi literario ezin hobean nabil. Tartean punturik sartu gabe 58 hitz lotuz, EGUNKA- RIAKO marka guztiak hautsi ditut esaldi lu- zeetan. Estilo liburuak gehienez 13koak izan daitezkeela dio. **Jon Alonsok, Ain- geru Epaltzak** ez lukete hobeki eginen. Azkenean egia izanen da sufrimendua dela literaturik onenaren sorburua—. Ira- kurleak ez dezala pentsa beste irtenbide- rik ez dudarik bilatu. Psikologoarengana joateko aukera aztertu dut. Are gehiago, baten bati loturarik gabeko aurrekontua eskatu diot. Eta erabaki dut handitan psi- kologo izan nahi dudala: aurrekontua eu-

rotan egina bazen ere, zenbatekoa ikusita hasiera batean pezetatan zegoela iruditu zitzaidan. Hortik atera kontuak.

Pepinilloa. Kontua da gertakari laz- gari hartatik urtebete igaro dela, eta nire enborraren ezpalak Jon izena aldarrika- tzen segitzen duela. Hori gutxi balitz be- zala, orain arrebari, Larraitz, izena alda- tu dio, **Sabino Aranaren** hilobia dardar batean jar dezakeen moduan, euskaratik erdarara, hartara, **Javier Iturbe** —ira- ganean ORTko buru, orainaldian PSNko udal taldeko eledun, etorkizunean batek daki zer— edo **Victor Manuel Arbeloa** —garai batean apaiz ileduna, gero PSN-

ko kide ileordedun, orain karnetik gabe- ko erregionalista desmelenatu (irakurle- ak barkatuko dit erdarakada: esaldia biri- biltzeko bide euskaldun jatorragorik ez dut topatu)— balitz bezala, bere orain arteko argudioen guztiz kontrako nora- bideari segituz. Larraitz gaixoari Pepita esaten dio. Aitortu beharra dago badue- la bere grazia.

Saltsa. Azken hamarkadetako joerek bere hartan segitzen badute, etorkizu- nean haurtzaroa, gaztaroa, zahartzaroa desagertuko dira, eta gizakiak nerabe jaio, bizi eta hilko dira. Garai batean, ne- rabezaroa bizpahiru urteko kontua zen:

ko kide ileordedun, orain karnetik gabe- ko erregionalista desmelenatu (irakurle- ak barkatuko dit erdarakada: esaldia biri- biltzeko bide euskaldun jatorragorik ez dut topatu)— balitz bezala, bere orain arteko argudioen guztiz kontrako nora- bideari segituz. Larraitz gaixoari Pepita esaten dio. Aitortu beharra dago badue- la bere grazia.



panpilonia zirkus

Bragarrojas

Ikas-bidaiarendako sosak ateratzeko ez zen hura bezalakorik, Donibane Kirol El- karteak zuen diskoteka, alegia. Urritik maiatzera, ortziraleroko, ikastetxe guztieta- ko 15-16 urteko ikasleek dantzaldia anto- latu eta goraino betetzen zen hura. Festa giroaz gain, airean ere itsatsia gelditzen zen beldur izpi bat, inork ozenki aitortu ez, baina antolatzaileen aurpegi teinka- tuetan suma zitekeena, hots, «los mori- lla». Batzuk barrandan zebiltzan Argaz bertzaldeko auzora begira, gau hartan irabazitako dirua diskotekatik atera eta gelakideren baten etxera eramaterakoan, bereziki. Izan ere, makarra armatuen ibi- lerak entzute handikoak izaten ziren 70eko hamarkadaren bigarren erdian, eta beti aipatzen zen Sanduzelaiko mori-

llatarrek haienak eta asto beltzarenak eginak zituztela Donibaneko diskotekan. Banda horiek jendearen hezurak eder- ki zafratu bertze entretenimendurik ez zuten. Saldo handian joaten ziren, ukabi- lak zorrotzurik, gazteen dantzatokietara, bereziki. Sekulakoak eta bi egin zituzten Saratsako Gure kaiolan eta Txantreako gazteen zentroan, Ines.oroitzen denez: «Gure auzoan, auzolagunen elkarteak su- permerkatu zahar bat hartu zian gazteek erabiltzeko, gero Burdindoki izanen zen hura. Han, dantza aldiro antolatu, eta be- rehala agertzen zituan bandak jendearen arrimura, basapiztien antzera, bazterrak jo eta txikitzeo asmoz. Eta Txandrea- n banda franko zebileken». Ez dira «Txandrea» ibiliko ziren guz-

● EGUNKARIA



Garai batean izua zabaldu zuten gazte bandek Txantreako inguruetan.

Enrike Diez de Ultzurrun

eta San Nikolaseraino iritsi ziren, arront oilartuak. Alde Zaharrean, berehala zabaldu zen talderen bat zebilela Ultzama, Otano eta Marrano ostatueta poteatzaileak gogor astintzen, eta, garai hartan errege kristoren gerri- lleroak ere maizko zona nazionaleko txokoa —Los Caidosko Cafeteria Reta- utzita, Alde Zaharrean bar- neratzen zirenez, kaskezu- rrak hausteko asmoz, ba, hura izan zen hura txandrio gorria. Bragarrojek ez zuten halakorik espero eta, bizkarrak ubeldurik, etxeko bidea hartu behar izan zuten. Ez ziren sekula itzuli. Handik gutxira, gainera, bandak gainbehera etorri ziren, Txantrean gerta- turiko makilada baten ondorioz, perso- na bat hil baitzen. 80ko hamarkadaren hasmentan izan zen hura.

Jone Fagoaga

OLINPIAR SKEETEKO TIRALARIA

«Jendea ohituta dago ni eskopetarekin ikustera»

Ttikitandik izan du ehizara joateko afizioa aitarekin, hiruzpalau urte zituenetik. Ehiza modalitateko tiroan ibili zen hasieran, txakurra lagun zuela, eta orain bi urte ekin zion olinpiar skeetean aritzeari, ahizparekin AEBetara egindako bidaia baten ondoren.

ILUSIOZ AITORTZEN DU ORAIN duen helburu nagusia Atenasen bi urte barru eginen diren Olinpiar Jokoetan aritzea dela. Espainiako txapela jantzi berri du.

■ **Ez da batere kirol ohikoa skeeta. Nola eta noiz hasi zinen kirol honetan?**

Orain bi urte ahizpa AEBetako euskal besta batera joan zen trikitixa jotzera, eta ni berarekin joan nintzen. Han osabak erakutsi zidan joko hau, eta izugarri gustatu zitzaidan. Honat etorri nintzenez hasi nintzen entrenatzen, Irunen.

■ **Etxera heldu eta skeeta egin nahi zenuela erratean, nola hartu zuten?**

Aitak ezagutzen zuen kirola, eta Irunera eramanez ninduen. Han hasi nintzen entrenatzen, nahi dudanean joaten ahal naitzela. Elizondon ere bada aukera kirol hau egiteko. Nik ez nuen ezagutzen, baina ez da hain ezezaguna.

■ **Lehenagotik, hala ere, ehiza-kirolean aritu zinen.**

Bai, txakurrarekin-eta. Orain ez dut

astirik denetarako. Ttiki-ttikitandik ehizara joaten nintzen aitarekin, 3 edo 4 urterekin. Gero poliki-poliki tiratzen hasi nintzen, txakurrarekin eta.

■ **Ehizan ibili izanak lagundu al dizu skeeterako?**

Bai, eskopetarekin ibilia zara, eta maneiatzeko-eta errazagoa egiten da.

■ **Zein dira bi kirol horien arteko alderik nabarmenak?**

Ehiza animaliekin da, eta hau, aldiz, platerekin. Skeetean

eskema beti bera da, baina platerak angelu ezberdinetatik ateratzen dira.

■ **Plater tiraketaren antzekoa da, hortaz?**

Ez, diferentea da. Plater tiraketan platerak aitzinera ateratzen zaizkizu. Skeetean leku diferenteetatik eta alde diferenteetatik ateratzen zaizkizu platerak.

■ **Ehiza-kirolean txakurra presentziak laguntza emanen zizun, ezinbertzekoa baita txakurraren eta jabearen arteko lotura. Sumatu duzu alderik?**

Nik ehizan jarraitzen dut, eta, hortaz, txakurrak mantentzen ditut. Ez dut horrelako alderik sumatu horregatik. Kirol hau garbiagoa da, edo platera puskatzen duzu, edo ez duzu puskatzen. Ehiza-kirolean, aldiz, epaile batek erabakitzen du.

■ **Afiziorik ba al da kirol honetarako Euskal**

Herrian? Zernolako maila dago?

Beno, bada pixka bat. Olinpiar kirola da, eta horrek ere laguntzen du. Ongi gabiltzanak Irungo bat eta biok gara.

Kiko Espainiako onenetakoa da. Urtero ateratzen dira izen berriak, eta neskak ere gero eta gehiago gabiltza olinpiar skeetean. Euskal Herritik kanpo tradizio handiagoa dago, eta hori nabaritzen da. Hala ere, hemen ere gero eta jende gehiago ari da kirol honetan. Zabaltzen ari da.

■ **Eskopeta jokoak gizonekin lotu izan dira gehiengotan. Zailtasunik ekarri al dizu horrek lehiatzeko orduan?**

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



soslala

Orain 18 urte jaiotzen zenean, Lesakan, Jone Fagoaga. Batxilergoa ikasten dihardu Beran, eta ikasketek uzten dioten denboraren arabera aritzen da entrenamenduetan, astean bizpahiru egunez.

Batxilergoa bukatzeko azterketa egiteko garai berean Europako Txapelketan parte hartuko du, Andorran. Nazioartean egiten duen lehenbiziko proba izanen da. Munduko Txapelketa uztailean izanen da.

Joan zen urtean Espainiako Txapelketa, Errege Kopa eta Espainiako Kopa irabazi zituen, lehiaketa guztiak. Aurten, oraingoz, Errege Kopa eta Nazioarteko Sari Nagusia irabazi ditu.

Ez. Hemen lehenagotik ere ezagutzen naute, ehiza-kirolean-eta ibili nintzelako, eta, hortaz, jendea ez da harrizten skeetean nabilela erraten diedanean. Lehenago okerragoa zen, ttikiagoa nintzenez, eta neska gainera, eskopetare-

kin ikustea ez zen normalena. Berdin zait zer erraten duten gainerako jendeek.

■ **Fisikoak, erreflexuek, teknikak, praktikak... Zer du garrantzi handiena, eta nola lantzen dituzu alderdi horiek?**

Ni txapelketan ariko banintz bezala entrenatzen naiz. Saiatzen naiz presio hori sartzen neure buruari. Ezin zara lasai aritu entrenatzen. Jendearen presioa-eta, handia da lehiaketan, eta maila berean aritu behar duzu.

■ **Prestaketa psikologikoak badu garrantzirik, beraz?**

Bai, anitz. Psikologikoki prestatu behar duzu, eta horretarako ditugu psikologoak selekzioan. Baina kirol erabat teknikoa da, hagitz agudo gertatzen da guztia. Zuk platera eskatzen duzun momentutik ateratzen den bitartean 1,7 segundo pasatzen dira. Eskopeta hanka parean edukitzen da, eta denbora horretan sorbal-dara igo behar da, apuntatu eta tiro egin. Teknikak eta erreflexuak behar dira.

■ **Erreflexuak lantzeko zerbait berezia egiten duzue?**

Etxean lantzen dut, ispi-luaren aitzinean. Platera eskatzen dudanean unea errepikatzen dut, aurrez aurrekoak. Eskopeta

altxatu eta posizioan paratzea izaten da, eskopeta beti leku berean paratzeko, eta aurpegia ongi sartzeko. Pisuak jaso eta ariketak ere lantzen ditut, sasoiko egoteko.

■ **Atenasko Olinpiar Jokoa dituzu helburu?**

Bai. Zaila da, baina hautatzaileak aukerak ditudala erraten dit. Aurten eta heldu den urtearen artean lortu behar dut plaza ateratzen, eta horretarako hasiko naiz aurten kanpora ateratzen.

■ **Zein amets duzu?**

Olinpiar Jokoetara joatea. Aurten poliki-poliki goiti joan nahi dut. Aurten plaza lortzea hagitz zaila izanen da, eta, hortaz, prestakuntza izanen da aurtengo, heldu den urtean plaza lortzeko.

→ Jon Abril

Egunkaria

• ostirala • 2002ko apirilaren 19a

ZALDIBEROA komikizopa



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Oroimen historikoa

Aurreko igandean, apirilaren 14an, Sartagudako herritarrek Errepublikaren alde eta faxismoak eraildakoen omenez egiten duten ekitaldian izan nintzen lehendabiziko aldiz. Ekitaldi xume eta hunkigarria, zerikusirik ez zuena askotan deitzen diren mobilizazio handiuste horiekin. Adineko jendea eta gazteak elkarrekin, *Internazionala* eta *Eusko Gudartak*, esperientzia eta indarra.

Aste berean Montxo Armendariz elkarriketatu eta faxismoaren kontrako borrokariaren inguruan galdetuta, haiek egindakoa ezagutaraztearen garrantziaz mintzo zen, gure historiako hainbat pasarte hurbil ezabatu nahi izan baituzte, inoiz existitu ez balira bezala. Trantzisio delako horren bertuterik handienetarikoa horixe izan baita, berreroak eta hildakoak maila berean jarri nahi izateak.

Eta halakorik egiten ahalko dute, agiri ofizialetan, historiaren bertsio berrituetan, egunkarietako paper horiztatuetan, Parlamentuetako aulki erosietan... Baina ez dute lortuko, ordea, garai latz horiek ezagutu zituzten herritarren baretik ezabatzea, ezta iraganetik ikasi nahi duten belaunaldi berrien gogotik ere.

Behar bezala orbaintzen ez diren zauriak ez dira inoiz desagertzen, ezin baitira edozein modutan sendatutzat eman. Oroimen historikoarekin ere gauza bera gertatzen da, ezin dira idatzitako orrialdeak besterik gabe erre. Are gutxiago faxismoak bere burua elikatzen segitzen duela ikusten denean, orduko kuneteroekin haien oinordekoek ideia eta praxisean bat egiten dutela gero eta garbiago dagoenean. Faxismoak historiatik hainbat gauza ikasi ditu, eta helburuak berdina badira ere, jarrerak mozorrotzen dituzte hitz politen azpian.

Historia behin eta berriz errepikatzerik nahi ez badugu beharrezkoak dira Sartagudan urtero egiten direnaren moduko ekitaldiak. Orain aiton-amonen ideiak aurrera eramateko zer edo zer ikasi dugula erakustea baino ez zaigu falta.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Uharte**: Arcanda taldea, bihar, Zona Limite aretoan, 01:00etan.
- ▶ **Iruñea**: Boikot eta Cuerno de Chivo taldeak gaur, 21:30ean, Reverendos aretoan.
- ▶ **Tafalla**: Kizio taldea gaur gaueko hamabietan, Gabalzeka tabernan.
- ▶ **Orokiet**: Aralar musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute bihar, 17:00etan, elizan.
- ▶ **Bera**: Doneztebeko Mendi abesbatza San Antonio elizan izanen da bihar, 20:45ean.
- ▶ **Bera**: Anari kantariak eta Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko dute bihar, 22:30ean, kultur etxean.
- ▶ **Aitzoain**: La Fuga eta Mr Fylyn taldeak bihar, 23:00etan, Artaiaian.
- ▶ **Izaba**: Kuto, Hyssophus eta Curno de Chivo taldeak bihar, 00:30ean, frontoian.
- ▶ **Burlata**: Samsara taldea asteartean, 20:30ean, Black Rose tabernan.
- ▶ **Iruñea**: Basque Country Egipcians taldea ostegunean, 21:30ean, terminal tabernan.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea**: Karrikirren zinemaldiaren baitan, *Liam* filma pantailaratuko dute gaur, 20:30ean, Golem zinematokietan.

ANTZERKIA

- ▶ **Iruñea**: Kuko, Truko eta Bolenwaidar pailazok *Munduan zehar* ikuskizuna eskainiko dute bihar, 12:00etan, Mikael aretoan.
- ▶ **Ziburu**: Gilkitxaro taldeak Trokolatarrak antzezlanaren taularatuko du igandean, 18:30ean, Tana tabernan.
- ▶ **Antsoain**: *Bigarren printzesa* ipuina kontatuko dute asteartean, 17:00etan eta 17:45ean, liburutegian.

▶ **Antsoain**: Txotxongilo taldeak *Erreka Mari* antzezlanaren eskainiko du ostegunean, arratsaldeko 17:30ean.

▶ **Burlata**: Iturruma institutuko taldeak *Ez da hain erraza* lana taularatuko du ostegunean, 20:00etan, Axular elkartearen.

HITZALDIAK

- ▶ **Noain**: Erlantz Urtasun historiariak *Orain mila urteko nafarrak* izenburuko hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan, kultur etxean. Gau eskolak antolatuta Nafarroako historiarene gaineko ikastaroetan izena emateko, deitu 948-317144 telefonora.
- ▶ **Iruñea**: Agustin Azkarate arkeo-

logoak VI. eta VII. mendeetako Baskoniar hitz egiten du gaur, 19:30ean, Navarrerria kultur zentroan.

▶ **Iruñea**: Ostegunean, Laura Mintegi idazlea *Sisifo maiteminez* bere liburuaz solastatuko da 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

▶ **Barañain**: Amaia Elosegik *Emakume bat Nepalen barna* izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du ostegunean, 20:00etan, Sahats euskaltegian.

LEHIAKETAK

- ▶ **Iruñea**: Maiatzaren Lehenean Txantrean egiten duten Aire Zabaleko II. Pintura Lehiaketan parte hartzeko Auzotegin eman

behar da izena hilaren 26a baino lehen.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Bera**: EHGAM taldearen 25. urteurrenako erakusketa ibiltaria hilaren 27a arte izanen da kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea**: Astelehenetik ostiralera mendi edota eski materialen merkatua egiten dute Nafarroa Kirol Elkartearen (Jarauta, 78), 19:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Barasoain**: Artzaintzaren inguruko hainbat ekitaldiren artean, bihar axuri emeen enkantea egiten dute 13:30ean.

Asteko erakusketa



● PERIKO ZUNZARREN

Forte Pedala, penintsulako mendebaldeko kronika grafikoa

Non: Atarrabiako kultur etxean.

Noiz arte: Apirilaren 26a arte.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 21:00etara.